

ARROLTZEAK

- MAÑANA: (bere zare eta saskien artetik oihuka): Arroltzeak fresko-freskoak! Zetozte hunat, jaun-andereak! Huna arroltze finak! Arroltze paregabeak.
- JAUN bat: (hurbiltzen da.) Oilo-arroltzeak ditutzu sments!
- MAÑANA: Preseski, gizon maitea! Oilar arroltze guziak atzo salduak ditut (irri egiten du)
- JAUNA.: Plazer dut, hain alegera baitzira.
- M.....: Bai eta nik ere, jauna; arsailleria hain ontsa hartzen duzulakota. Horiek hola, zombat arroltze behar ditutzu?
- J.....: Bi dotzena, ez badira segurik sobera kario!
- M.....: Frango merke dira... Peyrehoradeko merkaturik ari gara gu hemen: dotzena ehun eta hirur hogoi liberetan omen zen Peyrehoradeko joan den merkatuan...
- J.....: Bai, han omen eta hemen segur... Ez dautzut hoinbertze emanen, debrua ez baduzu!
- M.....: Zer zinituzke, ala kitorik nahi?
- J.....: Gogotik, emaiten bazinauzkit!
- M.....: Behazozu horren kopetari!
- J.....: Joko parte, ehun eta hirur hogoi libera, handichko zait... Ez dut gero loterian moltserik gizandu nik, prezio hoi en onhartzeko...
- M.....: Nik ere ez, urrurik artzeko... (gizonak urruntzerat egiten dueneko Halere iduri baituzu gizon serio behar bezalakoa norbait, alo... dotzena utziko dautzut ehun eta berrogoietan...)
- J.....: Hau emazteki judua!
- M.....: Zer! hogoi libera kentzen daukitzut eta oraino zureak handiago?
- J.....: Aise ttipituko ditutzu prezioak, behin aski emendatuz geroz!
- M.....: Zeruko Ama ona! Zer behar dugun aditu, gure borontate onaren sari. Ez zinituzke arais arroltze eder hauk ehun eta hogoi liberetan nehi?
- J.....: Ja! ja!... Hazparneko merkatuan ez dute arroltzek hoinbertze egin, hurbiltzekorik ere...
- M.....: Bego Hazparne den tokian... Hemen Baionan gira... Ehun eta hogoi libera erran dut: ez dut sos bat barkatuko!
- J.....: Ez eta Jainko maiteak ere sari, jujatuko zaituenean...
- M.....: Ontsa dakizu, zuk, Jainkoaren jujamenduen berri!! Ez duzu aditu treina sariak nola goititu dituzten; ez aditu, nohako zergak eta tatsak ezarri daukuten?... Arroltzeak kario zaizkitzula! Gaineratikoa hain merke othe dira?... Othoi ez eni erran zozokeriarik... Ehun eta hogoi libera erran dut: ez dautzut sos bat atherako...
- J.....: Ez eta nik ere arroltze bat... Berriz aldi bat arte... Egizu merkatu, Mañafia! (urruntzerat doa...)
- M.....: Hep! Jauna! Norat zoazkit hola?
- J.....: Bertze nunbait ba ahal da prezio hoberik!
- M.....: Hau gizon sentikofra! Zaude ba ittant bat... Ori, ez baitut egun oraino deus ere saldu, estrena-sari, ehun eta hamarretan uzten dautzut dotzena... Bazaitzu?
- J.....: Oraiko huntan kanore zerbait badu zure prezioak!

MAÑANA: (erhia ezpainetan) Jainkoaz, othoi, ez nehoi erran eros-prezioan saldu dautzutala!
JAVNA: Zaude ~~franki~~ deskantsu, ez dut gezur erraiteko usaiarik!
M.....: He?
J.....: Zer nahi den, ehun eta hamar liberetan hartuko daukitzut bai zorbait arroltze!
M.....: Preseski, fresko freskoak ditut oichtian errunak...
J.....: Oichtian errunak?
M.....: Ba, eta beharri fina bazinu, segur niz oraino adi zinitzazkela, arroltze hoik errun dituzten oiloen kantuak!
J.....: Hainbat gaichto!
M.....: Zertako 'hanbat gaichto'?
J.....: Hain chuchen, ez bainuen arroltze freskorik nahi!
M.....: Freskorik ez nahi?
J.....: Ez!
M.....: Zer nahi zinuen bada?
J.....: Arroltze ustelak.
M.....: Ustelak?
J.....: Bai, ustelak! Aditzea baduzu baditugula Baionan ur-gesal mainuak?
M.....: Ba izigarri usain tzarreko mainu batzu...
J.....: Justu! Pentsu duzun bezala, ur hoiien ontzeko sufrea biziki kario da eta mainu hoiien jabea eta buruzagia bainiz ni, sufre hofren orde, arroltze ustelak botatzen ditut urean: usain ber-bera emaiten diote urari...
M.....: Eta erieri on bera egiten?
J.....: Zer ba! (ahapeka bezala) Ez diotegu, gero, erieri salatzen, zerk usaintzen duen heien mainua... Balakite, chahu gintazke!
M.....: Gure aita zenak erraiten zuena: ez da nehun gerthatzen, mundu huntan bezanbat ichtorio!
J.....: Zuk errazu!... (ferdi-ahapeka) Ez zinituzke fortunaz zorbait arroltze pasatu?...
M.....: Egia erraiteko, Jaun buruzagia... Bakhar zorbait atchemanen ditugu beharbada, ontsa beharrez! Hoinbertzeren artean, mirakulu litake ez aurkitzea zuk nahi bezalako hetarik! Zombat behar zinuzke?
J.....: Oichtion errana: bi dotzena!
M.....: Ba, kausi errechak dira: marka ttipi bat egin diotet usteleri. Ala bainan ez ditzasket denak erosle berari eman... Hamabietarik bi ustel bakharrik, alegia deus ez! Hiru zorbait aldiz, bereziki gizonak heldu zaizkitalarik erosterat ezen, merkatu egiteko, frango tontoak zirezte bana bertze gizon hoik: ez dut, gero, zuretzat erraiten!
J.....: Beharrik!
M.....: (belhauniko, bilhatzen ditu) Bat, biga, hiru... hemezortzi! (miatzen du aintzina) Ez dut uste baden bertzerik... To... heneretzi! Ez da probetchurik: hau azkena dut, maluruki!
J.....: Bo!!! Gehichago beharko nituen bai!
M.....: Ez zira satifa-errcha! Ukhan banitu, gogotik salduko naukitzun: ez ahal duzu dudarik? Sinesten ahal nuzu: ez niz, gero, ni dena elhe zuri eta zimarku diren emazteki hetarik...
J.....: Sinesten zaitut segurki, Mañana... Bainan orai, erranak erran; bi dotzena hartzen daukitzut, hasteko, ustelik ez den zare hunterik. Bat;;; biga;;; hamabi;;; Bat... biga... hiru... hamabi... (bere zaraan emaiten ditu...) Ene kondua badut...
M.....: Eta ustelak?
J.....: Ah! ustelak? Begira zkitzu gizon tonto hoientzat, edo bertzenaz igor mainuetarat...

MARABA: Ez zira ba, zu, mainuen nausia?

JAUNA.: Ni? Ez nahi ere... Nik arroltze freskoak nahi ditut, eta dotzena bakotchean ez baitzait laket bizpahiru ustelen kausitzea, kasu pochi bat egiten dut erostean... Horra... (ditu emaiten du eta badoa huchtu eginez)

M.....: Bainan, gizona, nun duzu konzientzia? Zer uste duzu? Hala utziko zaitudala?

J.....: (urrundik) Jujetarat jaukitzen ahalko nuzu, nahi duzunean: zure zebitzuko izanen naiz! (itzaltzen da)

M.....: Faltsua ez bertzea! Ez da gehiago ohointzarik eta gezurrik balzik mundu trichte huntan!
